

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Epea irekitzea 2016ko tokiko zenbait tributu ordaintzeko

Bizilagunei eta, oro har, herritarrei jakinarazten zaie azaroaren 7tik, astelehena, abenduaren 23 arte, ostirala, egun biak barne, kobratuko direla, borondatezko aldian, zerga eta tasa hauek:

- Hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Landa ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Zaborra biltzeko zerbitzuaren tasa.
- Bideak mantentzeko tasa.

Ordaindu beharra duten zergadunek Udalak Kutxabanken duen kontu korrante honetan sartu behar dute dirua, goizeko 08:30etik 10:30era: ES33- 2095-3216-41-1090956243.

Zergadunei aholkatzen zaie zerga hauen ordainagiriak banketxeetan helbideratzea.

Ordaindu beharra duten eta aipatutako epean, hau da, abenduaren 23rako, ostirala, ordaintzen ez duten zergadunek ehuneko 20ko erretegia izango dute, eta premiamendu bidez kobratzeko bideari ekingo zaio.

Igorritako zenbatekoekin ados egon ezean, ordaindu behar dutenek berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote udal honi, kobratzeko borondatezko epea amaitu eta hilabeteko epean.

Bizilagunak eta herritarrak jakitun egon daitezen jakinarazten da.

Bastida, 2016ko azaroaren 4a

Alkatea

LAURA PÉREZ BORINAGA